

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)



EHUREKA AHOLKUAK

24

PUNTUAZIOA





SARRERA

Puntuazio-zeinuek testua ulergarriago eta argiago egiten laguntzen dute. Izan ere, puntuazioa ezinbesteko baliabidea da zenbait hitz edo esapideren erabilerak testuari ekar diezaiokeen anbiguitasuna ekiditeko.

Horrez gain, puntuazioak testuaren unitateak egituratzen ditu. Halaber, ideia nagusiak nabarmendu eta bigarren mailakoetatik bereizten ditu, ideien arteko menpekotasun-harremanak markatzen ditu, etab.



“”

KOMA

Pausa laburra adierazten du.

Honakoetan erabiltzen da:

- Enumerazioetan:** Isabel, Miren, Ane eta Sara ikusi nituen bart
- Perpaus konplexuetan:** Ez dio deitu arduradunari, behin baino gehiagotan esan diogun arren.
- Aposizioetan:** Etxepare, lehen euskal idazlea, Sarrasketan jaio zela uste da.
- Bokatiboa** bereizi behar denean: Aizu, Olatz, zatoz lehenbailehen
- Ondoko terminoek ere koma behar dute: **hau da, hots, esate baterako, azkenik, hala ere, adibidez, dena den, izan ere, beraz...**

Ez jarri koma subjektuaren eta aditzaren artean:

Itzulpengintza juridiko-administratiboa, hizkuntz normalizaziorako ahaleginen ondorioa da

“”

“”



PUNTU ETA KOMA

Komak baino pausaldi luzexeagoa adierazten du.

- Ideien unitate logiko bereko bi klausula independenteren artean jartzen da.

80-82 urte bitarte hartan gertatu zen; Armendarizek sailaren ardura zuen garaia zen hura

- Ideia beraren bi alderdi desberdin adierazten dituzten bi klausulen artean.

Mondragon Unibertsitatean emakumezkoak 2.191 dira; gizonezkoak, berriz, 3.134

- Komaz mugatutako parteen barruan beste komaren bat sartzean.

Bileran izan ziren, besteak beste, Rosa Idiakez, Enpresa Zientzietakoa; Mikel Urteaga, Ingeniaritza Eskolakoa; eta Izaskun Gonzalez, Filosofia Fakultatekoa



:

BI PUNTU

Bi puntuek ere pausaldi luzea adierazten dute. Honako kasuetan erabiltzen da, batik bat:

- Norbaiten edo nonbaiteko hitzak bere horretan testura ekartzen direnean.

Honela dio Araudiak: "Ikaslearen ordezkariak beste norbaitek egingo balu azterketa, ikasle hori ez-gai izango litzateke asignatura ebaluatzean"

- Ondorengoa aurrekoaren argibide edo adibide dela adierazteko.


Kanpokoei posta-gastuak ordaintzea eskatzen zaie aldizkaria jasotzeko: Espainiako estatuan 6 €, Europan 30 € eta gainerakoetan 72 €

- Orduetan.

1. mailako ikasleentzako ordutegi berria hau da: 08:15etik 14:15 arte

•
•

•
•



PUNTUA

Puntuak esaldiaren azkena markatzen du. Pausa osoa adierazten du. Honako kasuetan erabiltzen da:

- Zentzu osoa duen periodoaren bukaeran. Paragrafoaren amaiera markatzen duenean, puntu eta aparte egiten da.

Sarritan lehentasunezko jarduerak geroko uzten ditugu, gehiago atsegiten ditugunak egiten ditugun bitartean. Aitzakiak jartzeko eta gerora uzteko jarrera horrek antsietatea eta frustrazioa sorrarazten dizkigu.

- Laburduretan: adib. ("**adibidez**" irakurriko da); etab. ("**eta abar**"). Baina ez kontzeptu, magnitude, unitateak eta abar adierazteko jartzen diren ikurretan: m, kg eta USD.

- Zenbakien ondoren, "garren"-en orde.

Iturribide kaleko 6.ean dago Kultur Aretoa

